



50 URTE? BAI, ETA ASKOZ ERE GEHIAGO...

Inaxio Sanz Zalakain

—Ba bai, mende erdia bete dut, eta harro baino harroago nago. Nire motxila hartu, altxorra bihurtu, eta tira... alde batetik bestera, batzuetan kranpoiak jantzita, beste batzuetan gerritik soka lotuta, eta zergatik ez, bota arinak jantzita, herriko mendien galgarra bisitatzen. Eguzki dotorea, euri langarra, hotza, ekaiztea edo elurra zegoen egunetan 50 urte dituen motxila honek...

—Eee, lasai... baina zu nor zara?

—A, barkatu, MENDIRIZ MENDI ELKARTEA naiz. Mende erdia bete, pasadizoetan murgildu, hauekin orduak eta orduak pasa eta badakizu...

—Kontxo, abisatu, hainbeste liburu eta argazki zure motxilatik ateratzen ikusi zaitut; us-te nuen etxez etxe aritzen diren liburu sailtzailer horietako bat zinela.

—Ez ba, oroimen eta pasadizoen artetik, ospakizun honi alde batetik eta bestetik tiraka, oroimena astinduz, pasadizoak bizituz... hitz batean 50 urte hauei begirada goxoa eman ez hemen naukazu.



*Elkartearen
lehenengo urteak...
Santa Barbara
mendian, domina
banaketa.*



POLIKI-POLIKI LEHEN URRATSAK EMANEZ

—Baina urte haietan mendizaletasunik ba al zegoen?

—Bai horixe. Eta gehiago esango nizuke: Euskal Herrian 1870. urtean bilbotar lagun batzuk hasi ziren lehenbiziko pausoak ematen, mendieta-ko maldak igotzen eta jaisten. Hemen, Hernanin, antzeko egoera gertatu zen, baina urte batzuk geroago, gutxi gora-behera 36eko guda baino lehen Joxe Erdozia, Alfonso Troyer, Gregorio Zelaieta,

MENDI ELKARTEA. Garai hartan C. D. Hernaniren adarra nintzen.

—Urte zail haietan zer-nolako ekimenak antolatzen zenituzten?

—Begira, adibide gisa 1947. urtean gaur egun Santa Barbara mendian ospatzen den San Inazio egunari hasiera eman genion. Honen berri izango duzu, ezta? Ba, gaur egun bezala, gure enparantza nagusian biltzen ginen, mendira abiatu eta, ondoren, bapo-bapo jartzen ginen. Erromeriak ere bere tarte zabala izaten zuen eta, gero, guztia bukatuta, berriro herrira bueltatzen gi-



Mendiriz Mendiko partaideak, herriko mugetan, zuhaitzak landatzen.

Luis Gorospe, Jesus Egiguren, Juan Otamendi... lagun min hauek mendi irteerak antolatzen zituzten.

Orduz geroztik mendizale hernaniar hauek han eta hemen ibili ziren mendi federakundearen barnean aritu ez baziren ere, honen batzar batean entzule gisa onartu zituzten, nahiz eta elkarteak al- ta eman gabe zegoen, eta urte batzuk geroago, 1946eko ekainean sortu ninduten, MENDIRIZ

nen. A, begira, azpimarratuta dudan pasadizo hau. Anekdotak eta guzti izan baititugu...

—Zeren inguruan, kontatu, kontatu...

—Santa Barbara mendia errepublikanoen gordelekua zela eta ez zela, Karmelo Labaka bikarioak ezetz zioen, jaiaren barruan ez zuela mezarik emango. Haren jarrera ikusirik, Gasteizko gotzainarengana jo genuen meza emateko baimena lor-



70 hamarkadaren hasieran, mendizaleak Sierra Cantabrian.

tzeko asmoz;azkenean lortu eta meza eguerdiko 12etan egin zen. Eta hala nola konpondu egin genuen egoera bitxi hura. Hainbat urtez jai hori gure eskuetan izan zen eta gerora Mendi Gai nek hartu zuen egun hori antolatze ko ardura.

—A zer—nolako mendizaleak, beti jaiaren inguruan eta mendia alde batera utzita!

—Zu lasai ibili. Idazki guzti hauen artean denetarik baitugu.

Begira hemen aipatzen dena. Mendi federazioan sartu ahal izateko 3.000 metroko mendi bat igotzea derrigorrezkoa zen eta guk garai hartan oso aukera gutxi genuen horrelako zerbait lortzeko. Baina, tira... elkarteko hainbat ausartek C. D. Fortunak antolatutako irteera batean izena eman zuten eta Pirinioetara begira jarri ziren.

—Eta nortzuk izan ziren urrezko letraz beren izena inskribatu zutenak, lehenbiziko aldiz zuri ohorea emanez?

—Oso ondo gogoratzen dut, 1954. urtea zen eta autobusean igo eta gailur altu haietara abiatu ziren, Juan Otamendi, Antonio Agirresarobe, Tedi Setien, Manuel Apaolaza, Bixente Zupiria, Joakin Zigaran eta Jesus Gabilondo. Hauetako bik, Otamendi eta Agirresarobek, 3.046 metro dituen Argualas tontorra gainditzea lortu zuten. Eta, beraz, lortu nuen estatuko mendi federazioan onartua izatea.

—Beno, ez zineten hankamotz geratu.

—Ez ba, horrelakoak asko ditugu, idatzi hauen artean. Baina hernaniarrak garenez, Santa Barbarako ermitarekin badut beste historia txiki bat. 55. eko urtarrilean inauguratu genuen. Disenua Isidro Setien Alberroren gauza izan zen eta aipatu gabe ezin utzi herriko jende askori esker bukatu ahal izan genuela ermita. Eta ezin dut ahaztu egun hartan Jose Mari jatetxean egin genuen elkartasun bazkaria ere. A zein goxoa zegoen menua!... entremesak, oilo-salda, txahala jardinera erara, oilasko erreka, entsalada, brazo gitanoa, ka-



1989ko Urriaren 12an, elkarteko partideak Tuturreko buzoia konpondu eta berriro jarri zen egunean.

fea eta kopa. Goxo baino goxoagoa, eta guztia 55 pezetaren truke.

—Horixe da bapo-bapo jartzea. Azken finean mendizaletasuna ez da mendi batetik bestera ibiltzea bakarrik, beste gauza batzuk ere egin behar dira, ezta?

—Pixkana—pixkana ulertzen ari zara, denetarik egin behar da; besteak beste, apartatu honetan irakur dezakezunez, boletinak eta aldizkariak argitaratzen genituen. Lehenbiziko boletina 1959. eko irailean kaleratu nuen, albiste eta ekitaldiz josita, baina gauza bat zela eta bestea zela, azkenean lau egiteko kapaz izan ginen. Aldizkariei dagokie-nez, argia ikusi zuen lehena 1984 urtean izan zen, ILARGIAREN ITZALPEAN zuen izena eta begira bat, bi, hiru, lau... zazpi bat egin genituen.

—Jaiak, ermita, bazkaria, aldizkariak... eta futboleak zer?

—Ba futbola aipatu duzunez, 1964. urtean C. D. Hernanitik autonomia lortu nuen, nahiz eta elkarte horren adar bat izaten segitu nuen. Zuzen-dari batzordeko ordezkariaren irudia desagertu zen eta begira zeregin horretan zein izan ziren: Markos Zubeldia, Modesto Yeregi, Atarrabiyo, Jose Iturralde, Jose Elizegi, Rikardo Ganzarain, Antonio Perez, Javier Ganzarain, Joxe Mari Imaz, Ma-

nolo Ogando, Jose Mari Larretxea... eta gure elkartearen lehenbiziko presidentea Imanol Larretxea izan zen. Geroztik, makina bat lagun: Periko Puente, Antton Garin, Joxe Mari Larretxea, Arantxa Karrera, Arantxa Zuza, Mikel Zugasti, Inaxio Sanz, Prontxio Urdangarin eta oraingoa Guillermo Gonzalez. Horiexek izan ziren presidente guztiak eta agian, azpimarratu beharko dut 1986. urtean, orain hamar urte, C. D. Hernanirekin harremanak eten egin nituela, eta erabat independente bilakatzen naiz, MENDIRIZ MENDI ELKARTE bezala.

HAN, HEMEN ETA NON EZ?

—Eta pasadizo, kontakizun, anekdota eta historia guzti hauek non izan dituzu gordeta?

—Egia esan, ez dut oso artxibo zabala izan eta horren arrazoia da betidanik alde batetik bestera ibili naizela leku edo bulego finkorik gabe... eta badakizu, hori gertatzen denean, artxiboak ere nolabait erotuta ibiltzen dira.

Urte askotan Fronton tabernan kokatu izan dut neure burua. Hor ere gora—behera xeble bat gertatu zitzaigun. 1968. urtean gogoratuko zara artean Franco diktadorea bizi zela eta urte zailak zirela. Urriaren laugarrenean kide batzuk elkartuta zeuden eta han azaldu ziren poliziak ustez bilera politikoa egiten ari zirela eta. Bertan bildutakoak komisariara eraman zituzten autobus batean eta bileraren zergatia argitu ondoren libre utzi zituzten.

—A ze sustoa, ez?

—Bai, behintzat sustoan geratu zen. Gerora, eta agian pasarte hark eraginda Apaiz Etxearen azpialdean kokatu nuen neure burua, gutxi gora-behera 1969an. 78.ean berriz Viteri eskola izan-dakoetara pasa nintzen, eta 86.ean kiroldegira. Handik 8 urtera Caritasek Ezkiaga pasealekuan duen egoitzara eta, azkenik, gaur egun, bazkide batzuen lan desinteresatuari esker, zabaldu dugun bulegora.

GAUR NORA BIHAR HARA.

—Hainbeste mugimenduk, mendian gertatzen den bezala, alde batetik bestera mugitzeak esperientzia ederra eskainiko zizuen, antolatzen zenituen ekintzak era egokian egin ahal izateko?

—Noski, eta guzti hori batez ere garai bateko eratzen ziren altuera eta zeharkaldi lehiaketetan nabaritzen zen. Honezaz aparte, urtean zehar egiten ziren mendi irteerek oso protagonismo berezia zuten. Eta irteera hauetan, nahiz eta helduentzat prestatzen genituen, umeak sugandilak direnez, helduen artean nahasten ziren. Ekintza hauek 1970. urtera arte gogor iraun zuten, baina hamarkada horretatik aurrera mendi elkarten panorama aldatu egin zen.

—Zer zela eta?

Hitz batean esanda, kotxeen ugaltzeak bere errua izan zuen. Pixkana pixkana mendi irteerak gehiago individualizatu ziren. Batek kotxea eduki, berarekin lagun batzuk apuntatu eta horren ondorioz kolektiboan egiten ziren ibilaldiak murriztu ziren eta nolabaiteko krisian sartu ginen mendi elkarte guztiok.

Gainera, honi beste honako hau gehitu behar zaio: eskalada eta eski ekimenek zaletuak lortu zituztela eta hauek normalean koadrila edo taldetxo mailako giroan praktikatzen ziren.

Horren ondorioz, entzun, 80.eko hamarkadan eskualde mailako autobusak ez ziren betetzen. Baina zorionez, azken urteotan erraliate honen aurpegia aldatu egin da eta 90. eko hamarkadatik aurrera elkarte hau indarberritu egin da, ohiko irteerak antolatuz eta abar.

—Beno, etapa gogorra gaintitzea lortu da.

—Bai, halaxe da. Gainera ezin da ahaztu mendi irteerez aparte, beste ekintza batzuk antolatzen genituela. Besteak beste, eskalada, orientazio ikastaroak, zuhaitz egunean parte hartzen dugu, Mugarri festan ere bai eta urtero Mendizale aste-ari esker elkarte honek oihartzun zabala izaten du. Bertan diaporama ikuskizunak, altxorren bi-



**Elkarteko gaztetxoak
1990ko Mugarri
Egunean.**

la, gaztetxoek finalistak, diapositiba lehiaketa eta irteera bat izaten dira. Eta egia esan, oso positiboa izaten da, ehundaka hernaniar mendizalek hartzen baitu parte.

Eta gainera, elkartetik beste hainbeste lagun pasatzen dira kranpoiak, pioletak, ipar eskiak eta abar alokatzera.

—Guzti hau entzun eta gero, lasai asko esan daiteke aurretik oso etorkizun oparoa duzuela, ezta?.

—Halaxe dirudi. Urte batzuk krisian murgilduta igaro ondoren elkarteak sendo dagoela esatea ez da gezurra. Gaur egun MENDIRIZ MENDI elkarteak 485 bazkide ditugu, horien artean goi mailako mendizaleak. Zerrendan urrezko hizkiz idazteko oso lagun berezia eta denon ezaguna dugu: Martin Zabaleta. Hala eta guztiz ere, gure erronka nagusia gazteekin dugu, 14 eta 25 urte bitartekoekin alegia, eta, beraz, aurten saio bat egingo dugu beraienez irteera berezi batzuk prestatuz, helduen eta gaztetxoek taldeak oso finkatuak baitaude.

Bide horretatik zuzenduko da gure lana. Elkarte honek dagoeneko 50 urte bete ditu eta gehiago ospatzeko parada izango duela argi eta garbi dago.

—Horixe espero dugu denok. ZORIONAK!